



OIARTZUNGO
UDALA

874 ZK.KO DEKRETUA

Oiartzunen, 2015eko urriaren 26an

Gaia: GI-2132 ERREPIDE ALBOAN, OIARTZUNGO ZUAZNABAR ETA JUANSENDO KALEEN ARTEAN ESPALOI BERRIA EGITEKO LANEN KONTRATAZIOA. Kontratuaren esleipena

2015eko abuztuaren 28an, Alkateak emandako 687 zk.ko Dekretu bidez, GI-2132 ERREPIDE ALBOAN, OIARTZUNGO ZUAZNABAR ETA JUANSENDO KALEEN ARTEAN ESPALOI BERRIA EGITEKO Proiektu Teknikoa onartu zen; halaber lanak burutzeko, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez, kontratazio espedientea, kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta 67.778,60.- euroko (BEZ barne) gastua onartu ziren.

Halaber, esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea erabaki zen, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez, jardunbidean parte hartzeko gonbidapenak ondorengo sei enpresei bidaliz:

- CONSTRUCCIONES ALZOLA SL
- CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA SL
- ERRETI ERAIKUNTZAK SL
- EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL
- URBYCOLAN SL
- SASOI ERAIKUNTZAK SL

Proposamenak aurkezteko epean sei enpresek aurkeztu dute proposamena. Sei enpresa hauek aurkeztutako proposamenek baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian ezarritakoak betetzen dituztenez, sei enpresa hauen proposamenak onartuak izan dira.

Eskaintzen negoziazio fasea amaitu ondoren, sei enpresa hauen azken eskaintzak honako hauek dira:

<u>Enpresa</u>	<u>Eskaintza Ekonomikoa (BEZ barne)</u>
EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL	61.527,41.- €
ERRETI ERAIKUNTZAK SL	67.385,88.- €
CONSTRUCCIONES ALZOLA SL	58.678,03.- €
CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA SL	66.413,16.- €
URBYCOLAN SL	67.187,39.- €
SASOI ERAIKUNTZAK SL	50.377,60.- €

SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 50.377,60.- eurokoa den, BEZ barne, preziorik baxueneko eskaintza egin duelako, betiere baldintza agirian ezarritako esleipen irizpideen arabera Udal Arkitekto Teknikoak egindako eta espedientean jasota dauden balorazioetan oinarrituta. Horrenbestez, aipatu kontratazio prozeduran honela sailkatu dira aurkeztutako proposamenak:



OIARTZUNGO
UDALA

	Enpresa	Prezioa
1.	SASOI ERAIKUNTZAK SL	50.377,60.- €
2.	CONSTRUCCIONES ALZOLA SL	58.678,03.- €
3.	EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA SL	61.527,41.- €
4.	CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA SL	66.413,16.- €
5.	URBYCOLAN SL	67.187,39.- €
6.	ERRETI ERAIKUNTZAK SL	67.385,88.- €

Horiek horrela, 2015eko urriaren 14an Alkateak emandako 826 zk.ko Dekretu bidez, GI-2132 ERREPIDE ALBOAN, OIARTZUNGO ZUAZNABAR ETA JUANSENDO KALEEN ARTEAN ESPALOI BERRIA EGITEKO LANAK, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez, kontratatzeko prozeduran, proposamen ekonomiko onuragarriena SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresak aurkeztutakoa dela erabaki zen.

Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiriaren 24. klausularekin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen, azaroaren 14ko, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 151.2 artikulurekin adostasunean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaion SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari 2.081,72.- euroko behin betiko bermea eratzeko eta kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko, eta horrela egin du 2015eko urriaren 21ean.

Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak 2015eko urriaren 13an SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari kontratua esleitzeko proposamenari aldeko diktamena eman zuela kontuan hartuta; gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak 2015eko urriaren 26an egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, **ERABAKI DUT:**

1. GI-2132 ERREPIDE ALBOAN, OIARTZUNGO ZUAZNABAR ETA JUANSENDO KALEEN ARTEAN ESPALOI BERRIA EGITEKO LANEN kontratua SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari esleitzea, 50.377,60.- euroko prezioan, BEZ barne, eta 12 asteko epean burutzeko.

Ordainketa Udal aurrekontuko 1 0301 601 150 00 01 (A 935-2015 eta A 936-2015) diru-atalaren kargura egingo da.

2. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
3. Erabaki hau jakinaraztea enpresa esleipendunari eta gainontzeko enpresa eskaintzaileei.
4. Esleipen hau Udalaren kontratatzaileen profilean argitaratzea.

Jesus Leonet Elicegui Alkate-Lehendakari Jaunak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

